

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 46/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 2koa, dirulaguntzak emateko oinarri-arauak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, merkataritza-sozietateei, kooperati-ba-sozietateei, banakako enpresaburuei, profesionalei eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, baldin eta 2020ko ekitaldian euskarazko aldizkariak argitaratzen badituzte.

Euskararen Erabilpena Arautzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, zioen azalpenean, ezartzen du Konstituzioak eta Autonomia-Estatutuak Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dutela euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea.

Hortaz, 26. artikulua xedatzen du euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu eta beharrezko bitartekoak jarri behar dituztela gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatzeko aukera izan dezaten.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, eskumen hau esleitzen dio sail horri: euskara sustatzea eta xertatzea gizartearen alor guztietan.

Horretarako, kontuan hartu dira Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak (HAKOBA) eta Euskararen Aholku Batzordeak emandako gomendioak. Azken batzorde hori 10/1982 Legeko 29. artikuluan aurrez ikusita dago; harreman-organoa da, hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertu, bideratu eta koordinatzekoa. Bizkaiko Foru Aldundiak organo bietan parte hartzen du.

Halaber, oinarri gisa hartu dira euskara hutsezko hedabideen aurrerantzeko ekin-tzabidea ziurtatzeko Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko maiatzaren 8an sinatutako hitzarmeneko xedapenak. Hala, osatu egin da foru-dirulaguntzen deialdi honen esparru juridikoa.

Foru Dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude ezarrita eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuko 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru Dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira Foru Dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezotasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiari buruzko Foru Dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren



2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretukon 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri-arauak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko ekainaren 2ko bileran aztertutik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzea

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak 2020an euskarazko aldizkariak argitaratzeko, merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, banakako enpresaburuei, profesionalei eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei emango dizkien dirulaguntzen oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria.—Dirulaguntzaren xedea

1. Foru Dekretu honen babesean diruz lagunduko dira 2020an argitaratutako jatorrizko aldizkariak, bai paperean argitaratutakoak bai paperean eta modu digitalean argitaratutakoak, betiere haien xede nagusia bada tokiko, eskualdeko edo lurraldeko informazioa zabaltzea, eta euskara hutsean argitaratzen badira. Lurraldeko informazioztat Bizkaiko Lurralde Historikoari buruzkoa jotzen da. Ildo horretan, ez dira onartuko dirulaguntza jaso dezakeen hedabide edo aldizkari baten aldaera edo birformulazio hutsa diren argitalpenak, eta zehaztu beharko da informazioa euskara batuan edo bizkaieraz sortu eta argitaratu den.

a) Paperezko argitalpenen betekizun orokorrak:

- 1) Kazetaritza-edukia eduki osoaren %40 izatea, gutxienez; halakotzat jotzen da estilo horretan idatzita dagoena eta gaurkotasuneko gaiet buruzkoa dena. Artikuluen egiletza sinaduraren bidez jasoko da.
- 2) Publizitatea ez izatea eduki osoaren %50 baino gehiago, eta euskaraz egotea. Hala ere, iragarki elebidunak onartuko dira, betiere oreka mantentzen bada.
- 3) Jabetza intelektualaren arloko araudia betetzea.
- 4) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorrira, proiektua gauzatzen denean, ez erabiltzea hizkera sexistarik ez zuzenean, ez beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen diren dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan).
- 5) Argitalpenean agertzen diren berrien subjektua pertsona denean, edukietan pertsonen duintasuna errespetatzea.
- 6) Legezko gordailua eta ISSN izatea, edo, bestela, haiek lortzeko eskabidea izapidetuta izatea, hala ezarrita dagoen kasuetan.
- 7) Banaketa-sistema garden eta agerikoa izatea.
- 8) Argitalpenean salmenta-prezioa agertzea. Prezio hori harpidetzarena bada, ale bakoitzean jaso behar da aukera hori. Betekizun hau ez da bete behar doako hedabideen kasuan.
- 9) Aleak modu jarraituan eta izen berarekin argitaratzea.
- 10) Aleak segidako numerazioarekin argitaratzea eta argitaratze-data izatea.

b) Paperezko argitalpenen betekizun espezifikoak:

- 1) Gutxieneko maiztasun hau izatea:

Eguneroko argitalpenak badira, astean lau zenbaki atera beharko dira, gutxienez. Eguneroko argitalpena da gutxienez astean lau aldiz argitaratzen



dena izen bera erabilia, segidako numerazioarekin eta argitaratze-data zehaztuta, argitalpen horiei dagozkien legezko betekizunak (lege-gordailua, etab.) beteta.

Aldizkako gainerako argitalpenen kasuan (Foru Dekretu honi dagokionez, diziplina anitzeko aldizkari espezializatu gabeen kasuan), urtean 4 zenbaki atera beharko dira, gutxienez. Sailkapen horretan sartzen dira urtean gutxienez 4 zenbaki argitaratzen dituzten paperezko argitalpenak, baldin eta izen bera erabilia argitaratzen badituzte, segidako numerazioarekin, argitaratze-data zehaztuta eta argitalpen horiei dagozkien legezko betekizunak (lege-gordailua, etab.) beteta.

2) Ondoren zehazten diren formatua eta orrialde-kopurua izatea:

Eguneroko argitalpenen kasuan, astean 16 orrialde edo gehiago, tabloide formatuan. Beste formatu bat erabiltzen bada, Euskara Zerbitzuak kalkulu proportzionala egin ahal izango du orrialde-kopurua zehazteko, orriaren tamaina kontuan hartuta.

Aldizkako gainerako argitalpenen kasuan, 16 orrialde edo gehiago zenbaki bakoitzeko, DIN A4 formatuan. Beste formatu bat erabiltzen bada, Euskara Zerbitzuak kalkulu proportzionala egin ahal izango du orrialde-kopurua zehazteko, orriaren tamaina kontuan hartuta.

c) Paperean zein modu digitalean egindako argitalpenen zati digitalerako betekizun espezifikoak:

- 1) Informazioari dagokion edukia kazetaritza-estiloan idatzita egotea, gaurkotasuneko gaiei buruzkoa izatea, eta argitaratze-data zehaztuta egotea.
- 2) Edukiak idatziak edo ikus-entzunezkoak izatea, eta, gainera, ekoizpen proioikoak. Artikuluen egiletza sinaduraren bidez jasoko da.
- 3) Edukiak gutxienez astean behin eguneratzea. Inguruabar hori argi agertu behar da azalean eta ataletan. Betekizun honi dagokionez, argitalpenak Interneten gutxieneko presentzia duela ezartzeko, gutxienez 10 berri sortu eta argitaratu beharko dira astero. Interneten presentzia garrantzitsua («atari indartua») duela ulertzeko, gutxienez 29 berri sortu eta argitaratu beharko dira astero, eta, horrez gainera, bideo edo ikus-entzunezko bat astero argitaratu beharko da astero, edo gutxienez 18 berri sortu eta argitaratu astero, eta, horrez gainera, astero, bideo edo ikus-entzunezko bi.

2. Aurreko zenbakian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten argitalpenek ezin izango dute dirulaguntzarik lortu Foru Dekretu arautzaile honen babespean.

3. Foru Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, ESEP, ezarritako helburuekin bat ez datozen proiektuak. Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren 2012ko uztailearen 24ko erabaki baten bidez onetsi zen. Horrez gainera, kanpo geratuko dira argitalpen hauek ere:

- a) Eusko Jaurlaritzarenak, foru-aldundienak, udalenak edo aurreko horien menpe dauden sozietate publiko, erakunde autonomo edo antzekoen argitalpenak.
- b) Alderdi politiko, sindikatu edo profesionalen elkargoen argitalpenak.
- c) Elkartek, fundazio edo antzekoen argitalpenak, betiere, haien kideak edo bazkideak badira hartzaile bakarrak eta eskusiboak.
- d) Hezkuntza munduari bakarrik lotutako argitalpenak.
- e) Sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatzen ez duten argitalpenak, edo sexua dela-eta diskriminazioa eragiten dutenak.
- f) Eskoletako argitalpenak, kultura-aldizkariak, kirol aldizkariak, ikuskizunen gidak, denbora-pasak eta antzekoak.
- g) Argitalpen tekniko edo espezializatuak, eta gai monografikoak lantzen dituztenak.



- h) Tokiko argitalpenak, baldin eta ez badira informazio orokorrekoak edo diziplina anitzekoak.
 - i) Tokikoak, eskualdekoak edo lurraldekoak ez diren argitalpenak; azken kasuan, Bizkaiko Lurralde Historikoaz ari dela ulertu behar da.
 - j) Irratiak eta telebistak.
 - k) Argitalpen digitalak.
 - l) Deialdi honetan dirulaguntza jaso ezin duten argitalpenen gehigarriak.
 - m) Aurretik edo aldi berean paperean edo beste hedabide digital batzuetan argitaratutako edo irratiz edo telebistaz emandako jatorrizko edukiak erreproduzitzen dituzten argitalpenak, baldin eta eduki horiek argitalpenaren eduki osoaren %50 baino gehiago badira.
 - n) 2019ko maiatzaren 8ko hitzarmenaren esparruan Bizkaiko Foru Aldundiarena barik beste erakunde baten dirulaguntza jaso duten edo jaso lezaketan argitalpenak. Euskara hutsezko hedabideen aurrerantzeko ekintzabidea ziurtatzeko sinatu dute hitzarmen hori Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Ildo horretan, ezin izango da Foru Dekretu arautzaile honen dirulaguntzarik jaso baldin eta dirulaguntza hauek jaso badira: aipatutako hitzarmenaren esparruan administrazio horietako edozeinek emandakoak, edo Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat eremutan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko aldizka egiten dituen deialdien barruan emandakoak.
 - o) Publizitate-argitalpenak, gida komertzialak eta, oro har, batik bat publizitate-helburu edo -edukiak dituzten argitalpenak.
4. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak badira eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketan gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.
- Honako gastu hauek ezin dira diruz lagundu:
- a) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.
 - b) Banku-kontuetako interes zordunak.
 - c) Interes, errekaru eta zehapen administratibo eta penalak.
 - d) Prozedura judizialen gastuak.
 - e) Paperean zein modu digitalean argitaratutako argitalpenen zati digitalari dago-kionez, aldaketa edo hobekuntza teknologikoak, hau da, aplikazio edo garapen berriak egitea edo lehendik daudenak egokitzea.
 - f) Zeharkako zergak (besteak beste, BEZa) ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean dagoen aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan. Era berean, ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko errentaren gaineko zerga pertsonalak.
 - g) Oro har, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikularekin bat etorrira, beren-beregi kanpo utzitakoak.
5. Foru Dekretu honen helburua da entitate eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea. Inola ere ez da helburua jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak finantzatzea. Hori dela eta, jarraian zehazten diren finantzaketa-mugak bete behar dira. Entitate onuradunak bere gain hartu behar du argitalpenaren finantzaketaren %20, gutxienez, dirulaguntza-eskaera aurkezteko epea amaitzen denean lehen zenbakia argitaratu zutenetik jarduera profesionalean urtebete edo gehiago egin duten argitalpenen kasuan, eta %20, aldiz, jardun profesionalean urtebete baino gutxiago eman duten argitalpenen ka-



suan. Finantzaketa propioaren maila horretara iristen ez diren argitalpenek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira.

Autofinantzaketaren ehuneko hori entitate edo pertsona eskatzaileak eskaeran aurkeztutako aurrekontuaren gainean kalkulatu da, eragiketa honen bidez: dirulaguntza publiko ez diren sarrera guztiak (entitatearen beraren ekarpenak, salmentak, publizitatea, babesleak, entitate pribatuek egindako sarrerak, etab.) zati diru-sarrera guztiak. Autofinantzaketaren gutxieneko ehunekoa dirulaguntzaren justifikazioan ere bermatu beharko da.

2. oinarria.— Onuradunak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan euskarazko aldizkako argitalpenak argitaratzen dituzten Bizkaiko merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, banakako enpresa-buruak, profesionalak eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak izan daitezke Foru Dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, baldin eta ez badaude onuradun ez izateko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako egoretako batean ere eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea (pertsona fisikoen kasuan izan ezik).

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean egiaztatu beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Halaber, honako pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute dirulaguntzak emateko prozesu honetan parte hartu eta onuradun izan baldin eta:

- a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, dagokion zehapenak ezartzen duen epean zehar.
- b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.
- c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

3. Halaber, Foru Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude ondarean administrazio publiko baten edo batzuen partaidetza duten erakundeak eta unibertsitate publikoak.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

3. oinarria.— Araudi aplikagarria

Foru Dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek aplikatuko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik aplikatzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua entitate pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo



haien urteko diru-sarrerren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik datozkietnei, betiere gutxienez 5.000 eurokoak badira sarrerok.

4. oinarria.— Arau-haustek eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da, baita arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

III. TITULUA PROZEDURA

5. oinarria.— Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14. artikuluan xedatutakoarekin bat, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).

2. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasiko da.

6. oinarria.—Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoak erabili behar dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), 39/2015 Legeko 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Entitate batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren argitalpenen kasuan, zehaztu beharko da aurrekontuan zein den entitate bakoitzak egiten duen ekarpena eta zein gastu hartzen dituen bere gain; eskabidea, betiere, entitate bakarrak aurkeztuko du, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrela egiten ez bada, eskabide horiek ezetsi egingo dira.

Eskabide bakoitzak argitalpen bakarrari buruzkoa izan behar du. Ildo horretan, argitalpenaren paperezko formatua zein zati digitala proiektu bakartzat hartuko dira, Foru Dekretu arautzaile honen ondorioetarako. Hala, bada, eskabide bakarra egin beharko da, bi formatuok batera aurkeztuz.

2. Dokumentazio orokor eta espezifiko hau erantsi beharko da:

- a) Entitate eskatzailearen IFZren kopia. Pertsona fisiko batek identifikazio elektronikoa erabiltzen badu eskabidea egiteko, jarduteko ordezkaritza-ahalordea aurkeztu beharko du.
- b) Estatutuen kopia edo entitatearen eraketa egiaztatzen duen dokumentazioarena, non egoitza soziala jasota egon behar den.
- c) Eskatzailea dagokion erregistroan inskribatuta daudela ziurtatzen duen agiria (pertsona fisikoen kasuan izan ezik).
- d) Banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala beteta, alta edo aldaketaren bat egon bada bakarrik.

Aurreko a) letratik d) letrara bitartean aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da baldin eta ez bada aurretiaz aurkeztu foru aldundi honetako Euskara Zerbitzuan, eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan; izan ere, kasu horretan, zehaztu beharko da zein egunetan aurkeztu zen.

- e) Diruz lagun daitekeen proiektua azaltzeko memoria, eta bertan jaso behar dira, besteak beste: proiektuaren ezaugarri orokorrak; hartzaile potentzialak; helburuak; proiektua lantzeko, inprimatzeko eta banatzeko bitarteko teknikoaren deskripzioa, etab.
- f) Ordainketa-sistema baten pean merkaturatzen diren argitalpenen kasuan, Zabalkundea Neurtzeko Bulegoak emandako 2019ko zabalkunde-egiaztagiria, zein



naren bidez egiaztatu behar den ohiko zabalkundea ordainketa bidezkoa dela. Halako egiaztagiririk eduki ezean, inprimatze-gastuen frogagiriak (fakturak eta ordainketa-agiriak), zeinetan inprimatutako aleen kopurua jaso behar den.

- g) Doan banatzen diren argitalpenen kasuan, Zabalkundea Neurtzeko Bulegoak emandako 2019ko zabalkunde-egiaztagiria, zeinaren bidez jaso behar den banatutako aleen kopurua. Halako egiaztagiririk eduki ezean, banaketa-gastuen frogagiriak (fakturak eta ordainketa-agiriak), zeinetan banatutako aleen kopurua jaso behar den.
- h) Genero-berdintasunari dagokionez:
 - 1) Entitatearen genero-berdintasunerako plana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoko 45.2 artikuluko xedatutakoaren aplikazio-eremuan dauden entitateen kasuan.
 - 2) Entitatearen egoerari buruzko datuak.
 - 3) Entitatearen barruan abiarazitako neurriak edo berdintasun-plana.
- i) Entitate eskatzaileak, egoitza elektronikoaren bidez egindako eskaerei dagokionez, 2019ko ekitaldian argitaratutako zenbaki guztiak eta, eskabidea aurkezten den datara arte, 2020an argitaratutakoak bidali beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzura (Recalde zumarkalea 30, 5. solairua, Bilbo), edo, bestela, zenbaki horien lagin adierazgarri bat, batetik, egiaztatu ahal izateko argitalpenak benetan betetzen dituela diruz lagundu daitekeen proiektua izateko ezaugarriak, eta, bestetik, lortu ahal izateko dirulaguntza zehazteko oinarri den aurrekontu estandarra kalkulatzeko behar diren datuak.

3. Argitalpenaren ezaugarriak zehazteko eta proiektuari eman ahal zaion dirulaguntza kalkulatzeko oinarri izango den aurrekontu estandarra kalkulatzeko, entitate eskatzaileak ondoren aipatzen diren datuak adierazi beharko ditu eskabidean, hala zenbaki arruntei dagokienez nola gehigarrii dagokienez. Datu horietan, 2019ko ekitaldikoak eta 2020rako aurrez ikusitakoak —argitalpenaren ezaugarrietan aldaketa garrantzitsurik egon den ala ez ikusteko sartu behar dira. Hauek dira adierazi beharreko datuak:

- a) Argitaratutako zenbaki bakoitzeko orrialde-kopurua.
- b) Argitalpenaren formatua eta neurriak (A3, A4, beste formatu batzuk...).
- c) Argitalpenaren maiztasuna: urtean guztira argitaratutako zenbakiak.
- d) Interneteko presentzia: argitalpenaren zati digitalak astean argitaratzen dituen berri eta ikus-entzunezko berrien kopurua, 1.1.c).3 oinarrian ezarritako betekizuna neurtu ahal izateko.
- e) Zenbakiko ale-kopuruari buruzko datuak: argitaratutako zenbaki bakoitzean inprimatutako ale-kopurua.
- f) Kolorearen erabilera argitalpenean: zuri-beltzean; azala koloretan eta gainera-koa zuri-beltzean; erdia koloretan eta beste erdia zuri-beltzean; dena koloretan.
- g) Argitaratutako zenbaki bakoitzeko banatutako ale-kopurua: zehaztu behar da zenbat banatzen diren postaz, edo harpidetza bidez, eta zenbat banaketa masiboaren bidez.
- h) Adierazi behar da euskara batuan edo bizkaieraz argitaratzen den, eta zein den edukien eremua (udalerría, eskualdea, lurraldea) eta aldizkariaren banaketa-eremua (udalerría, eskualdea, lurraldea).
- i) Zehaztu behar da ea argitalpenaren aleak bidali diren Euskara Zerbitzura, Foru Dekretu arautzaileko 6.2.i) oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.
- j) Kazetaritza-estiloan idatzitako edukien ehunekoa, eta publizitatearen ehunekoa, eduki osoarekin alderatuta.
- k) Beste hizkuntza batean idatzitako hedabide baten itzulpena edo moldaketa bada, datu hori identifikatzeko aukera ematen duen informazioa.



- l) Proiektuari eskainiko zaion dedikazioa, aurrez ikusitakoa: proiektua aurrera eramaten ziur aski parte hartuko duten pertsonen kopurua eta bakoitzak izango duen ordu-dedikazioa, estimazioetan oinarritutakoa.
4. Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko 2. artikulua aintzat harturik, entitateak urtean guztira aurreikusten dituen sarrerak adierazi beharko dira.
5. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidea sinatzen duenaren identifikazio-datuak. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titular-tasun-datuak egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.
Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.
6. Halaber, eskabide hau sinatuta baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolaren Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

7. oinarria.— Eskaera zuzendu eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera Foru Dekretu honetan eskatutako agirietaoren bat aurkeztu ez bada, orduan errekerimendua egingo zaio entitate interesdunari, hamar (10) eguneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.
2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kirolaren Foru Sailak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkezten zaizkion eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

8. oinarria.— Dirulaguntzak emateko araubidea

Laguntzak emateko, ezohikoa den sistema bat erabiliko da: hainbanaketa. Sistema hori Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.1 artikuluan ezartzen da.

Hainbanaketa-sistema honen bidez, deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten entitateei emango zaizkie dirulaguntzak, baina aurkeztutako proiektuen arteko erkaketarik egin gabe, eta Foru Dekretu honetan aurrekontu-muga gisa ezarritakoa hainbanatuko da eskatzaileen artean.

Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak 2019ko maiatzaren 20an sinatutako hitzarmenak ezarri du emakida-prozedura hau, dekretu horretan kudeaketa-sistema berri bat ezarri baita euskaraz idatzitako aldizkako argitalpenak editatzeko laguntzetarako; izan ere, hau uste da: arlo instituzional horretan ezohikoa den hainbanaketa-sistemak (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.1 artikuluan ezarria) garbiago erantzuten die dekretuaren helburuei, funtsean informazioa euskaraz jasotzeko eskubideari (Euskararen Erabilpena Arautzeko 10/1982 Legeko 5. artikuluan onartutako oinarritzko bost eskubideetako bat).

Kontuan hartuta dekretuaren helburua dela euskara hutsezko aldizkarien aurrerantzeko ekintzabidea ziurtatzeko, deialdi honen dirulaguntzak emateko araubidea hainbanaketaren ezohiko sistema izango da. Ildo horretan, dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko oinarri diren aurrekontu estandarrak kalkulatu dira, Foru Dekretu honetako 9. oinarrian azaldutako irizpideen arabera. Aurkeztutako proiektuei a priori eman beharreko dirulaguntzek partida erabilgarria gainditzen badute, orduan, dirulaguntzen zenbatekoa proportzionalki murriztuko da partida horretara egokitu arte. Aitzitik, aurkeztutako proiektu-



tuei a priori eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa txikiagoa bada partida erabilgarria baino, orduan, dirulaguntzen zenbatekoa proportzionalki gehitu ahal izango da partida horretara egokitu arte, mugatzat hartuta proiektuaren eskatutako zenbatekoa eta deialdian ezarritako gutxieneko autofinantzaketa maila.

9. oinarria. — Dirulaguntzak emateko irizpideak

1. Foru Dekretu honetan araututako tokiko, eskualdeko edo lurraldeko euskarazko argitalpen bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, batu egingo dira hurrengo ataletan deskribatutako erregelak hiru kontzeptutan aplikatuta ateratzen diren kopuruak. Hauek dira hiru kontzeptuak: sorkuntza eta funtzionamendua; inprenta, eta banaketa. Batura horretatik, argitalpen bakoitzari —dituen ezaugarriak kontuan hartuta— egotzi ahal zaion aurrekontu estandar bat aterako da, eta estandar horri %30eko dirulaguntza-ehunekoa aplikatuko zaio.

Emaizta horri %10eko hoberia gehitu ahal izango zaio edukiak bizkaieraz sortzen dituzten proiektuetan.

Horrenbestez, argitalpen bakoitzari egotzi ahal zaion dirulaguntza zehazteko, prozedura honen arabera diseinatutako aurrekontu estandarra hartuko da oinarritzat:

- a) «Sorkuntza eta funtzionamendua» kontzeptuari dagokion aurrekontu estandarra honela zehaztuko da: kontzeptu honi dagokion aurrekontu estandarra zehazteko, biderketa hau egingo da argitalpen bakoitzarako: aurre-aurreko ekitaldi itxian (2019) argitaratutako orrialde-kopurua bider argitaratzeko erabiltzen duen paper-formatuaren arabera aurretiaz zehaztutako kostu estandarra. Kontuan hartuta 2020ko deialdiari begira argitalpenaren ezaugarrietan garrantzizko aldaketak gerta litezkeela (adibidez, maiztasunean) eta horrek zuzeneko eragina izan lezakeela urteko orrialde argitaratuen kopuruan, entitate eskatzaileak 2020rako aurrez ikusitako ezaugarrien berri eman beharko du, 6.3 oinarrian ezarritakoarekin bat etorrita, eta kontuan hartu ahal izango dira kontzeptu honi dagokion aurrekontua kalkulatzeko. Horrela, «sorrera eta funtzionamendua» kontzeptuari dagokiona kalkulatzeko, prozedura hau erabiliko da:
 - 1) Urtean argitaratutako orrialde-kopurua honela zehaztuko da, biderketa hau eginda: ale bakoitzean ateratako orrialde-kopurua bider urteko maiztasuna. Aintzat hartuko dira beharrezkoak diren egokitzapenak hedabideak gehigarriak edo aparteko aleak argitaratu baditu edo argitaratzeko asmoa badu. Halaber, kontuan hartuko da A3 (tabloidea) edo A4 formatuak ez direnak erabiltzen baditu. Kasu horretan, hurbilen dagoen formatuaren arabera kalkulatu ahal izango da orrialde-kopuru baliokidea.
 - 2) Formatu bakoitzari «sorkuntza eta funtzionamendua» kontzeptua dela-eta egotzi ahal zaion kostu estandarra: aurreko 1. zenbakiaren arabera argitaratutako orrialde bakoitzari egotzi ahal zaion kostu estandarra 304,36 € izango da A3 formatuko (tabloidea) orrialde bakoitzeko, eta 259,25 €, berriz, A4 formatuko orrialde bakoitzeko.

Aleko kostu estandar horietan jasota dago Interneteko gutxieneko presentziaren (10 berri astean) kostua. Hedabideak ez badu gutxieneko presentzia Interneten, %16 gutxituko da «sorkuntza eta funtzionamendua» kontzeptuari dagokion kopurua. Halaber, hedabideak presentzia garrantzitsua badu Interneten («atari indartua»; astean, gutxienez, 29 berri eta ikus-entzunezko bat, berriak eta jatorrizkoak, edo astean, gutxienez, 18 berri eta ikus-entzunezko bi, berriak eta jatorrizkoak), %20 gehitu ahal izango da «sorkuntza eta funtzionamendua» kontzeptuari egotzi ahal zaion aurrekontu estandarra.

- b) «Inprenta» kontzeptuari dagokion aurrekontu estandarra honela zehaztuko da: Kontzeptu honi dagokion aurrekontu estandarra zehazteko, biderketa hau egingo da argitalpen bakoitzarako: aurre-aurreko ekitaldi itxian (2019) inprimatutako orrialde-kopurua bider formatuaren eta ale-kopuruaren arabera zehaztutako kostu estandarra. Ildo horretan, Foru Dekretu arautzaile honetako 6.2.f) oinarrian ezarritakoarekin bat etorrita, entitate eskatzaileak argitalpenaren argitaraldiko



ale-kopurua egiaztatzen duen inprimatze-gastuaren frogagiria aurkeztu beharko du. Dena dela, kontuan hartuta argitalpenaren ezaugarrietan garrantzizko aldaketak gerta litezkeela (argitaraldiko ale-kopuruan edo maiztasunean, adibidez) eta horrek zuzeneko eragina izan lezakeela urteko orrialde inprimatuen kopuruan, eskatzaileak 2020rako aurreikusitako argitaraldiko ale-kopurua jakinarazi beharko du, eta kopuru hori kontuan hartu ahal izango da kontzeptu honi dagokion aurrekontua kalkulatzeko.

Hasierako emaitza zuzendu egingo da argitalpenean erabiltzen den kolore-kopuruaren arabera. Beraz, «inprenta» kontzeptuaren aurrekontu estandarra kalkulatzeko prozedura hau erabiliko da:

- 1) Urtean inprimatutako orrialde-kopurua honela zehaztuko da: argitaratutako zenbaki bakoitzeko ale-kopurua bider urtean argitaratutako orrialde-kopurua. Urtean argitaratutako orrialde-kopuru hori aurreko a) letran ezarritakoarekin bat etorritik kalkulatu da, formatua A3 (tabloidea) edo A4 formatuetara egokituta eta gehigarririk dagoen ala ez kontuan hartuta.
- 2) Inprimatutako orri-formatu bakoitzari «inprenta» kontzeptua dela-eta egotzi ahal zaion kostu estandarra, ale-kopuruaren arabera:

Botaldia / Tirada	A3 (tabloide) (€)	A4 (€)
0-1000	0,0075	0,0451
1001-5000	0,0075	0,0451 - (Tirada - 1000)* 0,00000825
5001-10000	0,0061	0,0121
>10000	0,0042	0,0101

b) letra honen 1 eta 2 zenbakietan lortutako emaitzen biderketak inprentako hasierako kostu estandar osoa zehaztuko du, zeina argitalpenak koloreari emandako tratamenduaren arabera doitu den:

Kolorea / Color	A3 (tabloide)	A4
Zuri-beltzean / En blanco y negro (B/N)	1	0,74
Azala koloretan; eduki gehiena zuri-beltzean Portada en color, la mayor parte del contenido en B/N	1,2	0,82
Erdia koloretan; beste erdia zuri-beltzean Mitad color, mitad B/N	1,25	0,915
Koloretan / En color: 4+4	1,5	1,09

Ildo horretan, 1 eta 2 zenbaki horien emaitzen eta kolorearen tratamenduari buruzko faktorearen arteko biderketak emango du «inprenta» kontzeptuari guztira egotzi ahal zaion azken kostu estandarra.

- c) «Banaketa» kontzeptuari dagokion aurrekontu estandarra honela zehaztuko da: Kontzeptu honi dagokion aurrekontu estandarra zenbaki bakoitzean urtean banatutako ale-kopuruaren arabera zehaztuko da. Ildo horretan, Foru Dekretu arautzaile honetako 6.2.g) oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, entitate eskatzaileak argitalpenaren zenbaki bakoitzeko banaketa egiaztatzen duen banaketa-gastuaren (posta bidezkoa eta/edo masiboa) frogagiria aurkeztu beharko du. Ondorio horietarako, posta bidezko banaketatzat hartuko da ez bakarrik postaz egindakoa, baita postontzietan egindako banaketa izenduna ere. Gainerako aukerak (hartzaileak diskriminatu gabe postontzietan banaketa masiboak egitea, intereseko lekuetan uztea, etab.) banaketa masibotzat joko dira.

Kontuan hartuta argitalpenaren ezaugarrietan garrantzizko aldaketak gerta litezkeela banaketari dagokionez (argitaraldiko ale-kopuruan edo maiztasunean, adibidez) eta horrek zuzeneko eragina izan lezakeela urtean banatutako ale-kopuruan, eskatzaileak kontzeptu honetan 2020rako aurreikusitako datuak jakinarazi



beharko ditu, eta kontuan hartu ahal izango dira aurrekontu estandarra kalkulatzeko.

Horri dagokionez, bereizi egingo dira posta bidez edo harpidetza bidez banatutako ale-kopurua eta modu masiboan banatutako ale-kopurua, eta faktore ezberdinak aplikatuko dira banaketa-eremuaren arabera (tokikoa, eskualdekoa, lurraldekoa) eta beste argitalpen batekin batera banatzen den ala ez kontuan hartuta. Hala, prozedura hau erabiliko da:

- 1) Biderketa hau egingo da: zenbaki bakoitzeko posta edo harpidetza bidez banatutako ale-kopurua bider argitalpenaren maiztasuna. Eragiketa horrek urtean posta bidez banatzen diren aleen kopurua emango du.
Gauza bera egingo da modu masiboan banatutako ale-kopuruarekin: modu masiboan banatutako ale-kopurua bider argitalpenaren maiztasuna egingo da. Eragiketa horrek urtean modu masiboan banatzen diren aleen kopurua emango du.
- 2) Banaketa-modu bakoitzean —posta bidezkoa edo masiboa— ateratako emaitzari kostu estandar bat aplikatuko zaio aleko, «banaketa» kontzeptuari egotzi ahal zaiona, faktore hauen arabera:

Argitalpena / Publicación	Maila / Nivel	Banaketa / Distribución	
		Posta edo harpidetza bidezkoa Postal o por suscripción (€)	Masiboa Masiva (€)
Egunkaria / Publicación diaria	Tokikoa/Local	0,0126	0,0048
	Eskualdekoa Comarcal	0,1148	0,0451
Beste aldizkako argitalpenak Resto de publicaciones periódicas	Tokikoa/Local	0,30	0,1148
	Eskualdekoa Comarcal	0,30	0,1148
Beste argitalpen batekin banatzen da Se distribuye con otra publicación		0,0574	0,0218

Banatutako ale-kopurua —postaz edo harpidetza bidez eta modu masiboan— bider aleko kostu estandarra (aipatutako faktoreak kontuan hartuta) eginda ateratzen den emaitza «banaketa» kontzeptuari guztira egotzi ahal zaion aurrekontu estandarra izango da.

2. Hala, 9.1 oinarriaren a), b) eta c) letretan deskribatutako hiru aurrekontu estandarren batura izango da argitalpenaren aurrekontu estandar osoa.

3. Argitalpen bakoitzari egotzi ahal zaion dirulaguntza aurrekontu estandar oso horren %30 izango da, eta %10 gehiago aplikatuko zaie beren edukiak bizkaieraz sortzen dituzten argitalpenei.

4. Lortutako dirulaguntza partida erabilgarria agortu arte gehitu ahal izango da, baldin eta soberakinik badago argitalpen bakoitzari dirulaguntza gisa eman ahal zaizkion zenbatekoak batu ondoren, mugatzat hartuta proiektuaren eskatutako zenbatekoa eta deialdian ezarritako gutxieneko autofinantzaketa maila. Bestalde, partida erabilgarria nahikoa ez bada, proportzionalki gutxituko da dirulaguntza, dagoen partidara egokitu arte.

10. oinarria.—Aholkularitza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu Foru Dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeke, (horretarako, www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara foru-webgunea erabili ahal da).

11. oinarria.—Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposa-



mena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran bakarrik jaso eta kontuan hartuko dira interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Aurreko guztia egiaztatuta ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea bi (2) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du ebazpena, Euskara zuzendari nagusiaren proposamena kontuan hartuta, Euskara Zerbitzuak txostena eman ondoren.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako pertsona eta entitate interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko da.

Foru Agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela eta interesdunek errekurtsio hauek jar ditzakete Foru Agindu horren aurka: edo aukerako berraztertze-errekurtsioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

12. oinarria. — Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

1. Foru Dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Baina ez dira bateragarri izango, ez Bizkaiko Foru Aldundiak berak helburu bererako emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, ez euskara hutsezko hedabideen aurrerantzeko ekintzabidea ziurtatzea helburu duen 2019ko maiatzaren 8ko hitzarmena sinatu duten gainerako administrazioek —Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak— emandako dirulaguntzekin.

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren Foru Dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Europar Batasunak aztertu du Foru Dekretu honen bidez diruz laguntzen den arloa, eta, 2016ko abuztuaren 4ko C (2016) 4971 Azken Erabakiaren bidez ebatzi zuen dirulaguntza hauek ez direla estatu-laguntzak; izan ere, ez dute eraginik Europar Batasunaren barruko merkatuan, toki-merkatu baterako baitira. Beraz, laguntza hauek salbuetsita daude Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108.3 artikuluan jasotako jakinarazpen-prozeduratik (de minimis laguntzak).



IV. TITULUA

DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA**13. oinarria. — Dirulaguntzaren ordainketa**

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren-beregi eta idatziz uko egiten, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

Deialdi honen ebazpena dela-eta onuradunen batek uko egiten badio emandako dirulaguntzari, horrek ez du berekin ekarriko ebazpenean jasota dauden eta onuradunei jakinarazi zaizkien dirulaguntzen zenbatekoak handitzea.

Dirulaguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 10 egun baliodun igaro eta berehala, Euskara Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta entitate onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, egiaztatuko da onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Halaber, egiaztatuko da ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

14. oinarria. — Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, foru-erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Foru-dirulaguntza onuradunak berak eskatuta itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Euskara zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den dirulaguntzari erreferentzia eginda.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, ordainketa finantza-erakunde batean egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara Zerbituari.

15. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era

Foru Dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen onuradunek konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. Jarduera osoa 2020ko ekitaldian egin behar dute.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduko 57. artikuluekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean justifikatu behar dute proiektua egin dela, hura emateko oinarritzakoak izan ziren baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuaren zenbateko araztuaren gastua jarduerari aplikatu zaiola. Horretarako, zenbait agiri aurkeztu beharko dituzte, egoitza elektronikoaren bidez, eta 2021eko martxoaren 1ean izango da horretarako azken eguna (hori barne). Hona agiriok:
 - a) Diruz lagundutako jardueren nondik norakoei buruzko memoria, honako hauek zehaztuta: jarduerak zenbateraino burutu diren, baita diruz lagundutako proiekturako zer giza baliabide eta baliabide material erabili diren ere.



Halaber, memoria horretan jaso beharko dute genero-ikuspegitik garrantzizkoa den informazioa, garatutako proiektuari dagokiona.

- b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituena:

- 1) Proiektuari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
- 2) Gastu-partida bakoitzean, dirulaguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
- 3) Gastuen jatorrizko frogagiriak edo haien fotokopiak. Frogagiriok aurrekontu araztuaren kontzeptuei buruzkoak izango dira. Aurreko horiekin batera frogagiri eta faktura guztien zerrenda ordenatua ere aurkeztu beharko da, zenbatekoa eta aurrekontuaren zein atali dagokien zehaztuta.

Betiere, argitalpenaren inprimatze- eta banatze-kostuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; gastuok 6. oinarriaren 2. zenbakiko f) eta g) letrak bat justifikatuko dira, eta 2020an benetan egindako kostuei buruzkoak izango dira.

Hainbat entitatek lankidetzan egindako proiektuen kasuan, aurrekontuan jasotakoa kontuan hartuta aurkeztuko dira frogagiriak.

- 4) Dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zerrenda zehatza, eta, hala badagokio, finantzaketa propioarena ere bai, baldin eta halakoen bidez finantzatu bada diruz lagundutako jarduera; xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da, partida bakoitzari dagokionez.

- 5) Diruz laguntzeko gastuaren aurrekontua justifikatzeko, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru-dirulaguntzaren entitate onuradunak egiaztagiriak aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontratazioarako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen entitate nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko orduan, efizientzia- eta ekonomia-irizpideekin bat jokatuko da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

- c) Egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarauak, kartelak, argazkiak, argitalpenak, ikus-entzunezko zein informatikako materiala eta bestelako dokumentazio grafikoa; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako dirulaguntza eman duela Bizkaiko Foru Aldundiak. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, Foru Dekretu honetako 16. oinarriaren e) letran ezarritakoarekin bat etorruta. Laguntza eman dela jakinarazi ondoren egindako jardueri bakarrik dagokie betebeharrak.

Onuraduna behartuta egongo da, beti, 2020. urtean banatutako argitalpenaren zenbaki eta gehigarri guztiak paperean bidaltzera Euskara Zerbitzuari.

16. oinarria. — Dirulaguntzen onuradunaren beste betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek ere izango dituzte:

- a) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea dirulaguntza eman dion erakundeari, egoitza elektronikoaren bitartez.
- b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea dirulaguntza eman dion erakundeari, egoitza elektronikoaren bitartez. Halaber, erraztu egin



- beharko ditu diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipena egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak.
- c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntza ematea, hala eskatzen bazaie, eta egin beharreko proiektuaren gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
 - d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.
 - e) Editatutako material guztietan eta dirulaguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesak agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, bai eta euskararen txantxangorriarena ere, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz: «Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babesutako argitalpena/Publicación subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».
- Bizkaiko Foru Aldundiaren babesak ikusgai egon behar du argitalpenaren leku nabarmen batean.
- f) Dirulaguntza jaso duen argitalpenaren kanpoko publizitate eta jakinarazpen guztiak gutxienez euskaraz egitea.
 - g) Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta eskusibitaterik gabe lagatzea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.
 - h) Edozein kasutan ere, onuradunak beste interesdun batzuen aurretik eman behar dio lehentasuna Foru Aldundiari, diruz lagundutako esku-hartzeari buruzko memoria argitaratzeko.
 - i) Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako koordinazio-ekitaldietara joatea.
 - j) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzukidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkartzean eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta giza-legezkoak bermatuta.
 - k) Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa balioki-deak izan daitezen zaintzea, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzukidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
 - l) Proiektua garatzen ari den bitartean hizkera sexistarik ez erabiltzea sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan), eta sortzen den pertsonen buruzko edozein estatistiketan datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 3. artikulua.
 - m) Pertsona fisiko edo juridikoek 50 langiletik gora badute, egiaztatu behar dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat dutela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat, eta benetan aplikatzen dutela. Justifikazioarekin batera betebeharrak izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.



- n) Pertsona fisiko edo juridikoek hamabost langiletik gora badute, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan indarkeria matxista prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko. Justifikazioarekin batera betebeharrak hau bete izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.
- o) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduko 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.
- p) Deialdi honi dagokionez, foru-dirulaguntza baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduko 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren %90 azpikontratatu ahal izango da, gehienez.

17. oinarria. — Itzulketa

1. Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan edo Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Justifikatu beharreko guztia justifikatzen ez bada.
- b) Emandako dirulaguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.
- c) Dirulaguntza justifikatzen ez bada edo Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zerbitzuak horretarako errekerimendua egin ondoren.
- d) Proiektua egiteko epea betetzen ez bada jasotako kopurua itzuli beharko da, baita sortutako berandutze-interesak ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak errekerimendua egin ondoren.
- e) Dirulaguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- f) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- g) Foru Dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, dirulaguntza itzuli beharko da.

18. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Deialdi honetako dirulaguntzak emateko 2020. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

- a) Sei ehun eta bederatzi mila euro (609.000 euro), merkataritza-sozietate, kooperatiba sozietate, banakako enpresaburu eta profesionalentzat, 2020ko ekitaldiko G/0406/335106/44300/0000_2008/0041 aurrekontu-partidaren kargura.
- b) Berrehun eta lauogeita hamar mila euro (290.000 euro), irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuentzat, 2020ko ekitaldiko G/0406/335106/45100/0000_2008/0041 aurrekontu-partidaren kargura.

Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 43. artikuluan 4. eta 5. zenbakien arabera, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren Foru Agindu bidez, deialdia ebatzi baino



lehen, aldatu ahal izango da. Erabilgarri dauden kredituen behin betiko adierazpena eta kredituen banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, gastu-espedientean egin beharreko aldaketak egin ondoren, baina argitaratze horrek ez du ekarriko ez eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik.

2. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

AZKEN XEDAPENAK

Amaierako Lehen Xedapena.— *Arauk emateko gaikuntza*

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari Foru Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako Bigarren Xedapena.— *Indarrean jartzea*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2020ko ekainaren 2an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ